



Olatz Peon Tolosako alkatearen hitzaldia, Batzar Nagusietako Osoko Bilkura ibiltarian:

Batzar Nagusi ibiltaria azkenekoz Tolosan egin zenetik denbora asko igaro da. 23 urte.

Eta denbora honetan asko aldatu dira gauzak. Gipuzkoak eta Tolosak aurrera egin dute modu nabarmenean. Alor ekonomikoan, gizarte alorrean, baita politika eta demokraziaren alorretan ere, bakearen eta bizikidetzaren eskutik.

Garai bakoitzak bere erronkak izaten ditu. Gaur egun ditugun erronkak eta zailtasunak ez dira nolanhikoak. Garai aldakorak ditugulako. Egonkortasunerako aukera txikiagoak, beste garaietako egoerekin alderatuta.

Mugikortasuna, ingurumena, gizarte kohesioa, ongizate ekonomikoa, berdintasuna, hizkuntza politikak, digitalizazioa, informazioaren gizarte eta beste zenbait erronka. Ezustekorik gabeko etorkizunerantz bideratuko gaituzten eta gipuzkoarren bizi kalitatea hobetuko duten erantzunak bilatu eta bideratzera garamatzatenak. Baina lan hori ez dagokio inondik ere Batzar Nagusiari edo Foru Aldundiari bakarrik. 88 udalerrri gara, 88 udal Gipuzkoan, erronka horiei modu koordinatuan, leialean eta guztion onurari begira aurre egiteko.

Pertsonak ardatz hartuta, tokikotasunetik, etorkizuneko erronkei aurre egiteko konpromisoari eutsi nahi diogu. Datozen belaunaldiei herri hobeagoa eskaintzeko. Horretarako ezinbestekoa da erakunde sendoak izatea, eta erakundeen artean etengabeko elkarlanean eta lankidetzan aritzea gizarte kohesionatuago baten eraikuntza ardatz izan behar dugu Foru eta udal politiketan, adina, sexua, gizarte egoera eta jatorriagatik alderaketarik egiten ez duen gizarte eraikitzeke. Prestazio integralak eta egokiak ziurtatuko dituzten politikak, bakoitzak esleituta dituen eskumenetatik abiatuta, eta ikuspegi orokorra ahaztu gabe.

Garai berriek, egiteko modu berriak eskatzen dituzte. Gertutasunetik eta herri partaidetzarako mekanismoak ahalbideratuz. Gipuzkoarrok etorkizunaren jabe izan nahi dugulako.

Etorkizuna guztion artean eraiki behar dugu. Jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatuz, desberdintasun sozial, ekonomiko eta linguistikoa gutxituz.

Azken gai honi helduz, Tolosan eta eskualdean burututako kaleko hizkuntza erabileraren azterketaren emaitzak aditzera eman du, euskararen kale erabilera berrindartu egin dela Tolosan. Eta gaur gaurkoz, euskaraz aritzen gara Tolosako kaleetan inoiz baino gehiago. Gazteen arteko euskara erabilerak igoera nabarmena izan du azken 5 urtekoan, eta helduek hazkunde erritmo konstantean jarraitzen dute. Bide onetik goaz, beraz, eraiki nahi dugun herria euskaratik eraikitzeke bidean.

Batzar Nagusietako lehendakariari hitza eman aurretik, zuei guztioi zorioneko egonaldia opa dizuet Gipuzkoako hiriburu historiko honetan.

Eskerrik asko.